



## Ainhoa Sanchezek egin du kartel irabazlea

**TOLOSA** ▶ Abesbatza Lehiaketa iragarriko duen kartelak «aretoan dagoen isiltasuna» islatu nahi du ▶ 3



Ainhoa Sanchez bere kartelarekin. E. EZEIZA



## Adimen Emozionalaren proiektua aurkeztu du Laskorainek Malagan

**TOLOSA** ▶ Heziketa emozionalari buruzko Nazioarteko Lehendabiziko Biltzarrean parte hartu dute Ikastolako lau ordezkari ▶ 2

**LEITZA** ▶

## Eskuz Binakako Txapelketako finalak, bihar Amazabalen ▶ 7



Orain Olaberrian  
Toyota kontzesionario berria!

# EuskoAuto



Karobi industrialdea z/g  
Olaberria  
Tel.: 943 80 59 26

[www.euskoauto.toyota.es](http://www.euskoauto.toyota.es)

## TOLOSA ▶ HEZIKETA

## ERREDAKZIOA

Pasa den astean, hilaren 19an, 20an eta 21ean, Laskorain Ikastolako lau ordezkari Malagan (Espainia) izan ziren bertan antolatutako Heziketa Emozionalari buruzko Lehen-dabiziko Nazioarteko Kongresuan parte hartzen. Hain zuzen ere, Kepa Goikoetxea, Beatriz Ezeiza, Jose Martin Aizpuru eta Aitziber Aierdi izan ziren Ikastolan sortu duten eta aurrera daramaten Adimen Emozionalaren inguruko proiektua jendaurrean aurkezte zutenak.

Laskorain Ikastolako kideek azaldutakoaren arabera, Malagako kongresu honetan nazioarteko Adimen Emozionalaren teoriko eta ikerlari nagusienak izan ziren beren lanak aurkezten, M. Brackett, J. Mayer, R. Emmerling eta H. Traue, besteak beste. Eta, hauekin batera, nazioarte mailan Adimen Emozionalaren inguruan egiten ari diren saiakerak, aplikazioak eta hainbat esperientzia azaldu dituzte hiru eguneko kongresuan. Hauen artean Laskorain Ikastolak Adimen Emozionala ikasleekin nola garatzen duen erakutsi zuen.

Tolosarren lana, Hezkuntza Arloan Izandako Esperientzia Adimen Emozionalaren gaiaren barruan aurkeztu zuten, Rafael Bisquerra katalana mahai buru zutelarik; bertan, Ikastolakoen azken hiru urtetan egindako lana erakutsi zuten Espainiako hainbat ikastetxe, unibertsitate eta erakundetako kideak entzule zituztela. Laskorain Ikastolak, 2-18 urte bitarteko haur eta gazteen artean Adimen Emozionala garatzeko, ikastetxe osorako prestatu duen eta aplikatzen ari den programa aurkeztu zuen. Ikastetxeko plan horren barruan sartzen dira ikasturte osoan lan taldean prestatu dituzten eta urte amaieran argitaratuko diren 12-18 urte bitartekoentzako saioak.

Malagan aurkeztutakoaren ondoren ikus ahal izan dute «Gipuzkoako Foru Aldundia-aren eskutik, duela hiru urtetik Gipuzkoako ikastetxeak Adi-

# Adimen Emozionala lantzeko proiektua aurkeztu dute Malagan

Laskorain Ikastolako lau kide izan ziren pasa den astean Heziketa Emozionalari buruzko Nazioarteko kongresuan



Beatriz Ezeiza, Kepa Goikoetxea, Aitziber Aierdi eta Jose Martin Aizpuru, Malagan. HITZA

## ESPERIENTZIA

Malagan bitartekoaren ondoren, lanean jarraitzeko ilusioz itzuli dira Laskorain Ikastolako kideak

men Emozionalaren inguruan egiten ari direna ez dutela Espainian landu, eta ondorioz, dago beste lurralderik proportzio berean hezkuntza sarean

## SARITUA

Adimen Emozionalaren proiektuarekin bigarren sailkatua izan da Premio a la Accion Magistral sarian

maila honetan lanean ari denik».

Hala, Malagan bitarteko esperientziak lanean «gogoz jarraitzeko ilusioz» itzuli ditu Lasko-

raingo lau kideak eta ikasleekin ez ezik, ikasturte honetan gurasoekin lanean hasteko erronka berriarekin.

Bestalde, Malagan aurkeztu duten Adimen Emozionalaren ikastetxeko proiektua FAD, UNESCO eta BBVA erakundek antolatzen duten Premio a la Accion Magistral sarirako aurkeztu dute, eta EAEn bigarren sailkatua izan dira Beasaino Murumendi eta Donostiako Intxaurren ikastetxeen tartean, hain zuzen.

## TOLOSA ▶

## Jesus Mari Arrieta izango da parroko berria

Tolosako Santa Maria parrokiari Joan Mari Uriarte Gipuzkoako Gotzaina izango da gaur, 20:00etan. Santa Maria parrokiako parroko berria izango den Jesus Mari Arrieta aurkezteko etorriko da. Orain arte Donostiako seminarioko erretore izandakoa da. Santa Maria parrokiako kristau elkarte eta Tolosako herritar guztiak gonbidatzen dituzte elizkizunera.

## TOLOSA ▶

## 14.086 eta 07.113 zenbakiak izan dira sarituak

Bai Euskarari ziurtagiria duten Tolosaldeko saltoki eta enpresen bezeroen leialtasuna eskertu nahian zozketa jarri zuten abian, eta ahuak dira zenbaki sarituak: Bi lagunentzako landa-turismoko etxe batean gau bat 14.086 zenbakia duenak irabazi du, eta Villabonako Ogi-Goxoa okindegian banatu zuten. Ordularia, berriz, 07.113 zenbakia duenak irabaziko du. Zenbaki hau TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAKO egoitzan banatu zuten.

## ALEGIA ▶

## Kadeteek futbol partida etxean jokatu dute

Intxurre futbol taldeko lehenengo mailako lurraldekakok Amararren aurka jokatu dute gaur, Martutenean, 19:30ean. Kadeteek, berriz, Alegian, gaur, 11:00etan izango dute norgehiagoka. Aurkaria Euskalduna taldea izango dute. Jubenilek, bestalde, 11:30ean jokatu dute Lazkaoan. Neskak datorren astean hasiko dira.

## hilberria ▶

## Hilario Arrillaga Bonasategi (Jauna)

2007ko irailaren 28an hil zen, Donostian, 92 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

Zure irria ez da sekula gure bihotzetan itzaliko

MARGARI, IÑAKI, MIKEL eta ETXEOAK

Senideek haren animaren alde otoi bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezte! GAUR, LARUNBATA, arratsaldeko ZAZPI eta ERDIETAN, PASAI SAN PEDROKO parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

DONOSTIAN, 2007ko irailaren 29an

## urteurrena ▶

## Juanita Amundarain Otegi Juan Miren Mendizabal Benito

IX. urteurrena

Urruti zaudete eta zaila da gu zuengana iristea, hainbeste maite zaituzten batzuentzat a zer nolako gauza tristea!

Alegera bakarra daukagu, ametsetan sinistea. Zuek ikusteko noiznahi aski dugu gure begiak istea.

MAITE ETA BEHAR ZAITUZTEGU, BETI

Garazi, Javi eta June, Itxaro, Alberto eta Aiora, Elorri eta Unai

ORDIZIA, 2007ko irailaren 29a

HILBERRIAK  
URTEURRENAK  
ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko  
HITZAN jarri eta Gipuzkoako  
beste 4 Hitzetan DOAN  
agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN  
120.000 IRAKURLE

ESKELAK  
19:00ak arte hartzen dira  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info  
Tel.: 943 65 56 95

KULTURA ▶

# Belarriak zorrozten hasteko...

39. Abesbatza Lehiaketaren sarrera gisa, bihar Voces8 taldearen kontzertua izango da San Frantziskon

**ESTI EZEIZA**

Urteroko legez, gerturatzen ari da Tolosako Ekinbide Etxeak antolatutako Abesbatza Lehiaketa. Aurtengoa 39.a izango da eta urriaren 27tik azaroaren 4ra ospatuko da. Urte honetako egitarauak Europako 15 herrialde, Ameriketako bost eta Asiako bi ordezkatzen dituzten 23 talderen partaidetza du. Sarrera gisa, bihar, 19:30ean, San

Frantzisko elizan, joan den urteko lehiaketan arrakasta handia izan zuen taldeetako bat entzun ahal izango da. Voces 8 abesbatza etorriko baita kontzertua ematera. Zortzikote hau, sei mutil eta bi neskez osatua dago eta Erresuma Batutik dator. Musika profanoaren atalean lehiatu ziren joan den urtean.

Bestalde, saioaren hasieran, Ainhoa Sanchez, Tolosako 39.



Voces8 abesbatza entzun ahal izango da bihar. HITZA

Abesbatza Lehiaketa iragarzen duen kartelaren egilea sarritua izango da, egindako lanarengatik.

Abesbatza Lehiaketako harpidetza etzitik aurrera eta urriaren 11ra arte izango dira salgai. Halaber, sarrearen salmenta urriaren 18an jarriko da martxan. Bai, batak eta baita besteak ere, Kutzak sarrera banaketarako dituen hiru bideen bitartez erosi ahal izango dira. Hau da, Servikutxa, Telekutxa edo internet bitartez. Bide honetatik ez ezik, urriaren 18 eta 19an, Leidor antzokiko lehiatilan ere erosi ahal izango dira, 17:00etatik 19:00etara eta baita, lehiaketako saioetan ere.

**AINHOA SANCHEZ** ▶ 39. ABESBATZA LEHIAKETAKO KARTEL IRAGARLEAREN EGILEA

Gisa honetako lehiaketa bateara aurkezten zen lehen aldian Ainhoa Sanchezentzat (Beasain, 1985). Hala, orain, oinez doala, berak egindako kartela, Tolosako eta ingurueta saltoki gehienetan ikusi dezake. Berak egindakoa baita 39. Abesbatza Lehiaketa iragarzen duen kartela.

**Zer da kartel honekin islatu nahi izan duzuna?**

Nire ustez lehiaketa batean, lehendabizi dagoena orri txuri bat da. Musikari lotuta dagoenean, berriz, orri txuri baten gainean dagoen pentagrama bat etortzen zait burura. Kasu honetan berriz, isiltasunean dagoen pentagrama bat. Musikari lotuta doaz, pentagramak, abesbatzak, jendea... Baina ideia horiek guztiak era simple batez pentagrama batean eta isiltasunean islatu nahi izan ditut. Agertu nahi izan dudana mementua, abesten hasi aurretik aretoan dagoen isiltasuna da.

**Hasieratik garbi al zenuen agertu nahi zenuena?**

Probak egiten joan nintzen. Guk diseinu grafikoan ordenagailuarekin egiten dugu lan gehiena, baina niri marraztea asko gustatzen zait. Hala, horriak hartu eta marrazkiak egiten hasi nintzen, musikarekin lotzen nituen gauzak egiten.

**Erraza izan al da, buruan zenuen ideia hori, paperean islatzea?**

Proba asko egin nituen. Nahiko simple utzi dut, agian, simpleegi. Kartelaren berezitasuna hori da, simplea dela, eta txuria. Hasiera batean pentsatu nuen, ideia arriskutsuegia zela. Ez nuen uste gustatuko zitzaionik epaimahaiari.

**Aurkezterako, aurreko urtee-**

**tako kartel iragarleak ikusita al zenituen?**

Bai, baina hauek oso ezberdinak ziren, koloretsuagoak, argazkiekin...

**Espero al zenuen irabaztea?**

Ez. Gainera, eskolako ariketa bat zen, eta azken mementuan ibili nintzen hau egiten. Aurkeztu nintzen, baina ez nuen uste irabaziko nuenik.

**Gustura geratu al zinen emaitzarekin?**

Bai, baina arrisksuegia zela uste nuen, kaleko jendeak askotan kolore biziak bilatzen baititu. Ez nuen irabazteko asmorik, eta esan zidatenean ni nintzela irabazlea, ikaragarri harritu nintzen.

**Abesbatzen lehiaketarako kartela egiteko, musikaz ulertu behar dela uste al duzu?**

Ez, garrantzitsuena da gustuko izatea eta gaiaren inguruan informatzea. Hortik aurrera, inspirazioa da, ideia bat izatea eta sormena.

**Zer esaten dizu inguruko jendeak, kartelaz?**

Askok galdetzen didate ea zer diren lerro horiek. Arraroa dela esaten didate. Egia da, ez da ohiko kartel bat, jendea abesten ikusten den horietakoa. Baina era berean, horregatik da deigarria. Diseinu grafikoan lantzen dugun ezaguarrietako bat sotiltasuna da. Arraroa izatearekin arreta deitzen du.

**Gainontzeko lehiakideen lanak ikusi al dituzu?**

Bai, ikusi ditut, eta denak oso onak dira. Nik balio handia ematen diet kideen lanei.

**Zain zon saria?**

Seirehun euro, biharko aurkezpenaren egotea eta jaialdirako sarrerak.

## «Abesten hasi aurretik, aretoan dagoen isiltasuna islatu nahi nuen»



E. EZEIZA

**▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO**

**Eztabaida.** Iruran sanmielak ospatzen ari diren bitartean, Tolosan Udazkeneko jaia egingo dute gaur. *Zeuk idatzi* kasualitatea al da? Egokia al da zure ustez orain arte egin ez den festa egun bat beste batzuekin batera jartzea?

**iragarki laburrak ▶**

**SALGAI**

**Furgoneta.** Wolsvagen Kalifornia, guztiz hornitua eta egoera onean. Deitu 615 70 10 52ra.  
**Estetikako apaingailuak.** Solarium horizontala, ilea behin betirako ezabatzekoa eta kamila. Deitu 660 05 76 05era, 16:00etatik 20:00etara.  
**Extebizitza.** Beasainen etxebizitza salgai. 50 m<sup>2</sup>, bi logela, altzairuz hornitua. 26 milioi pezeta. Deitu 605 75 51 35 edo 670 42 24 67ra.

**LANA**

**Sukaldaria.** Larraulgo aterpetxerako sukaldaria behar da. Interesatuak deitu 943 31 14 74ra.  
**Tabernaria.** Amasako Iturri-goxo jatetxean tabernari bat behar dugu, arratsaldeetarako. 943 69 12 10.  
**Aerobik monitorea.** Asteasuko kiroldegia aerobik monitorea behar du. 639 96 70 75.

**ALOKAIRUA**

**Atikoa.** Iruran atiko bat alokatzen da. Telefonoa: 685 22 70 58.

VILLABONA ▶ GIZARTEA

# Zaintzaileen estresari buruzko ikastaroa abian jarriko dute

Udaletxean eman behar da izena urriaren 5a baino lehen

IMANOL GARCIA

Villabonako Udalak *Zaintzaileen estresa* ikastaroa antolatu du. Ainhoa Garcia psikologoak emango du eta saioak urriaren zehar izango dira. Ikastaroa doakoa da eta izena emateko epea urriaren 5an amaitzen da. Horretarako gizarte zerbitzuera jo behar da. Ikastaroa zaintzaile lanetan, bai profesionalki bai senideren bat zaintzen duena, aritzen direnei zuzenduta dago.

Ikastaroaren beharraz galdetean, Ainhoa Garcia azaltzen duenez, «gero eta jende gehiagori eragiten dio zaintzailearen estresak eta menpekotasuna duten gero eta adineko jende gehiago dago. Gainera,

zainketa horren ardura gero eta gehiago izaten da senideentzat eta, batez ere, emakumeentzat». Garciak dioenez, zaintzaile lanak egieko inor ez dago berez prestatuta. Beraz, «zaintzaileek borondate guztiarekin egiten dute lan hori, baina hain da lan handia, laguntza bat behar dutela eta horregatik da garrantzitsua formazio bat jasotzea».

Hain justu, zaintzaileei sortzen zaien lehenengo arazoa lanaren gehiegizko karga da, ikastaroaren arduradunak azaltzen duenez: «Adinekoen zainketa ardura gehiena dutenek, beraiek baino hobeto ez duela beste inorrek lan hori egiten pentsatzeko joera dute. Beste pertsona batzuen esku

uzten badute zainketa lana, errudun sentitzen dira». Gizarte mailan zainketa lan hauek egiteko «mahiko baliabide» ez daudela gaineratzen du Garciak. «Ez daude beharrezko plaza guztiak eta zaintzaile informalei ez zaie ematen behar duten laguntza guztia».

Ikastaro guztiz dinamikoa egiteko asmoa du Garciak. «Hasieran zenbait teoria izango da, estresari buruzko zertzelada batzuk emanez. Praktiki dagokionez, erlaxazio teknikak landuko ditugu. Gizarte gaitasunari eta asertibitateari garrantzia handia ematen diogu eta hori landuko dugu ere. Azkenik, arazoak sortzen direnean, horiek nola bideratu daitezkeen jorratuko dugu».

SEGA ▶

## Sega desafiorako eta ondorengo afarirako txartelak salgai eskualdean

ERREDAKZIOA

Datorren larunbatean, urriak 6, sega desafioa egingo dute Zizurkil Goian, 17:00etan, elizaren ondoko zelaian. Juan Joxe Lizasok eta Jon Lapazarane osatutako bikoteak aurrean izango ditu Jexux Ormaetxea eta Andoni Goikoetxea. Desafioaren ondoren Zizurkil Goian sagardo dastaketa eta afaria egingo dituzte, trikitilarien erromeriak alaituta.

Bai desafiorako txartelak bai afarirako txartelak salgai daude eskualdeko hainbat tabernetan. Sega desafioko txartelak 10 euro (egunean bertan 12) balio ditu eta afarikoak, 18 euro helduentzat eta 8 euro haurrentzat. Tolosan, Raku eta Orbela tabernetan daude salgai; Ibarra, Arkaitz, Azpi eta Atarin; Villabonan, Xaldu eta Itzalpen; Zizurkilen, Beibategi eta Atxulondon; Anoetan, Itzulin; Asteasun, Iturriondo eta

Patxinen; eta Ikaztegietan, Tokialain.

Bestetik, taberna horietan antolatzaileek porrak ipini dituzte. Euro baten truke egin daiteke apustua. Zein bikote irabaziko duen eta zenbat kiloren aldearekin asmatu behar da. Gertuen ibiltzen denak eskualdeko porra guztietan lortutako diruaren erdia irabaziko du. Irabazleari saria egunean bertan emango zaio apustuaren ondorengo erromerian.

POLITIKA ▶

## Gudari Egunaren harira ekitaldiak egin dituzte



Goikoetxeari eta Jauregiri egindako omenaldiaren une bat. A. IMAZ

ERREDAKZIOA

Gudari Egunaren inguruan hainbat ekitaldi egin zituzten herenegun eskualdean. Leitzan, esaterako, 60 bat lagun bildu ziren eta manifestazioa burutu ondoren, karrapean idatzi bat irakurri eta eusko gudariak abestuz bukatu zituzten ekitaldiak. Tolosan ere manifestazioa egin zuten, es-

kualde mailakoa. Alde Zaharretik egin zuten ibilbidea 120 bat lagunek. Aurretik omenaldi ekitaldia egin zuten Berduraplazan.

Ibarra, bestalde, Sebastian Goikoetxeari eta Josetxo Jauregiri omenaldia egin zioten Arane iturriaren ondoan dagoen monolitoan. Beraien sendeei lore sorta bat eman eta agurra dantzatu zieten.

ZIZURKIL ▶

## Azken egunak izena emateko ikastaroetan

Zizurkilgo Udalak hainbat ikastaro antolatu ditu. Dantza afrikarra asteazkenetan, 19:30etik 21:30era, Atxulondo kultur etxean; patchwork, asteazkenetan 18:00etatik 20:00etara, Atxulondon; makillajea, urriaren zehar, astelehenean, 19:00etatik 21:00etara Atxulondon; jaiotzak egiten ikasteko ikastaroa, urriaren 17an hasita, sei astetan, Atxulondon. Informazio gehiago nahi izanez gero, Aurrerako Udal Bulegoetara edo 943 692495 telefono zenbakira. Azken egunak dira izena eman nahi dutenentzat.

IKASTAROAK ▶

## Larraul, Adunan eta Alkizan ikastaroak

Aiztondo Mankomunitateak ikastaroak antolatu ditu. Larraulen *Kirola ezagutz* ikastaroa emango dute, ostegunetan, 17:00etatik 18:00etara; marrazketa, asteartetan, 18:00etatik 19:00etara, eta ludoteka, asteazkenetan, 17:00etatik 18:00etara. Adunan astelehenean, euskal dantza 18:15etatik aurrera eta antzerkia 16:30etik 17:30era. Alkizan, ludoteka musikala, astelehenean, asteazkenean, 16:30etatik 17:30etara, eta ostegunetan 14:30etatik 16:30etara, eta pilates astelehen eta asteazkenetan, 09:00etatik 10:00etara.

eskualdeko aukera hoberenak!

**Idra Nordikoak**

Ibaiondo 15 • Irura  
943 69 16 77  
contacto@idranordicos.net

**Joxean**

- iturgintza
- aire egokitua
- inst. industrialak
- berokuntza
- gasa

Jai zoriontsuak opa dizkizue irurar guztiei

Kale Nagusia, 30 • 20271 IRURA • Tel/faxa: 943693352 • 656416808

**Carpintería ATARI, S.L.**  
ARROZTEGIA

Arroztegi mekanikoa. Obrak eta berrizantak. Eskalera eta altzariak oserritu. Enektibitateko eta ikal komertzialerako arroztegi.

carri@eskalab.net

Arroztegi mekanikoa, 7 • 20271 IRURA • Tel: 943 69 01 40 • Fax: 943 69 34 20

**AMETZ ESTANKOA**

Tabakoa  
Prensa  
Goxokiak

M. Goi Angeru enparantza, 2  
20271 IRURA  
Tel.: 943 69 96 51



BIDEGOIAN ▶ KULTURA

# XVIII. Kultur Astea Goiazko erakusketa bitxiarekin hasiko da

Bihar goizean zehar herritarren antzinako tresnen erakusketa, artisauena, azoka eta jatekoak izango dira

ERREDAKZIOA

Bidegoiango Kultur Astea bihar hasiko da. Aurten 18. urte da antolatzen dutela, eta urtero egiten dena ikusteko aukera badago ere, badira berrietasunak ere. Ekitaldi batzuk Goiazko plazan egingo dira eta besteak, berriz, Bidanian.

Bihar goizean zehar Goiazko plazan erakusketa, azoka eta jaia daude. Egur-taila, pilotak, larrua eta artisautza orokorrean izango dira: tartean, herritarren antzinako tresnen erakusketa ere izango da. Azoka ere izango da, eta baita sagardo eta txakolin dastaketa ere.

Asteartean, berriz, eguraldiari buruz Pello Zabala amezketarra ariko da, Bidegoiango balioanitzeko gelan, 19:00etatik aurrera.

Ostiralean afaria

Datorren ostiralean Kontzeju jatetxean afaria izango da 15 euroren truke, baina txartela urriaren 3a baino lehen erosi behar da, eta jatetxean bertan izena eman. Afariaren aurretik, Iñaki Alberdi auto gidariak hitzaldia emango du. Hau da aurreko gonbidatu duten kirolaria.

Urriak 6, larunbata, haurrei zuzenduriko eguna izango da, marrazki lehiaketa eta pailazokak baitaude. Kasu honetan, Poxpolo eta Mokolo dira. Hauen saioa 17:30ean izango da. Marrazki lehiaketarako han bertan eman behar da izena, eta ez dago adin-muga jakinik gabe.



Artisautza erakusketa aurten ere izango da. NEREA LIZARTZA

EGITARAUUA ▶

**IRAILAK 30, BIHAR**

**Goizean.** Goiazgo plazan erakusketa, azoka eta jaia. -Erakusketak: egur-taila, maketagitza, pilotak, larrua eta abar. -Azoka. -Sagardo eta txakolin dastaketa eta sardina jatea. ▶ Herriko baserriko antzinako tresnen erakusketa izango da.

**URRIAK 2, ASTEARTEA**

**19:00.** Hitzaldia: *Eguraldia*. Hizlaria: Pello Zabala, balioanitzeko gelan.

**URRIAK 5, OSTIRALA**

**20:00.** Hitzaldia Iñaki Alberdi

auto gidariaren eskutik, balioanitzeko gelan. **21:30.** Herriko Kontzeju jatetxean afaria. Izen-ematea jatetxean urriak 3 baino lehen.

**URRIAK 6, LARUNBATA**

**15:00.** Marrazki lehiaketa. Oinarriak egun berean banatuko dira. Parte-hartzaileen adina: 1-5 urte bitartekoak; LH 1., 2.; LH 3., 4.; LH 5., 6.; eta adin honetatik gorakoak. 5 mailatan banatu dute lehiaketa. Sariak ere izango dira.

**17:30.** Poxpolo eta Mokolo *Run-Run* emanaldiarekin. ▶ Ondoren, txokolatada.

ALDABA ▶ JAIAK

## Sanmielak, gaur hasita

Gaur patata tortilla lehiaketa izango da

ERREDAKZIOA

Sanmielak Aldabako auzoan ere badira. Gaur eta bihar ekitaldiak izango dira: tartean, tradizio bihurtzen ari den patata tortilla lehiaketa, gaur 19:30ean. Bertara bakoitzak bere tresneria eraman behar du, baina osagaiak bertan izango dira parte-hartzaileen ztat.

Bihar bukatuko dira jaiak, baina egun osoan zehar ekitaldiak antolatu dituzte aldarrek. 12:00etan Ainara eta Miren trikitilariak izango dira, eta ondoren pilota partidak. Arratsaldean, 18:00etan, berriz, umeentzako jolasak izango dira, eta baita trikitilariak berriz ere. Honekin, auzoko aurtengo jaiak bukatutzat emango dituzte.



lazio hamaiketakoak. N. U.

EGITARAUUA ▶

**IRAILAK 29, GAUR**

**10:30.** Txupinazoa. **11:00.** Meza Nagusia. **12:00.** Hamaiketakoak. **19:30.** Patata tortilla lehiaketa (jangaiak bertan egongo dira. Sua, zartagia... bakoitzak eraman beharko du). **21:00.** Zahagi ardoa pilotalekuan (aulkia, ardoa eta sagardo egongo da prestatuta. Gainerakoa bakoitzaren esku). **23:30.** Erromeria, Ansoregi, Larrañaga eta Lutxurdioren trikiti doinuekin.

**IRAILAK 30, BIHAR**

**11:00.** Meza nagusia. **12:00.** Ainara eta Mirenen trikiti doinuek, eta pilota partidak. Benjaminen maila: Aldalur-Larrea eta Garmendia-Peña bikoteak. Kadeteen mailakoak: Urretabizkaia-Bereziartu eta Otaegi-Gailurralde. Helduen mailan: Iburguren eta Alonso, eskuz banakakoan. **18:00.** Umeen jolasak. ▶ Ainara eta Miren trikitilariak, erromerian izango dira. ▶ Aurtengo jaien amaiera, bukatzeko.

**Astakiloen abenturak**  
8 liburuz osatutako ipuin bilduma

Patsiku, Olegario, Mikel eta Joseba astakiloen abenturaren garatuko duzue!

**Bernardo Atzagak idatzitak - Marrazkiak: Jokin Mikelena**

- 1- Astakiloak Arabian
- 2- Txanflantiko batuan
- 3- Astakiloak Finisterre aldean
- 4- Zirku batuan
- 5- Manager bibotodura
- 6- Astakiloak New Yorken
- 7- Astakiloak Afrikan
- 8- Afrikako zuhaitz txikia

**Urriaren 6tik aurrera, larunbatero BERRIAREKIN**

+4,5 €

Liburu gutxiak erosit gero, astakiloen marrazki bildumen DVDa oparit  
6 abentura bitan dituz. 60 minutuko iraupena du.

berria

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

**Tximak**  
**9le Apaindegia**

**Estetika**  
**Solarium**  
**Tahe**  
**Fotodepilazioa Lases**

Kale Nagusia, 18 • IRURRA  
Tel.: 943 69 33 94

## GUTUN@K ▶

Andoni  
Iturzaetari  
erantzuna

Lizartzan, irailaren 22an gertatutakoari buruz, HITZAN agertu diren hire adierazpenak, eta hire alderdiko lehendakaria den Begoña Erraztiaren egungo «intsumisotasun pozgarria» ikusita, alde batetik ulergaitzak egiten zaizkiguk, bestetik orde normalak; «lotsari errespetu guztia» galdu eta beren buruak «aldaretan» dauzkatenaren jende gehiegi ote dago-

en susmo eta sentipenak gero eta handiagoak dizkiagulako.

Hasteko, ez diagu uste Lizartzan hintzenik. Beraz, norbaitek eman diken bertsioan oinarritzen haiz, ertzainen jarrera, tokatzen zitzaiena zela afirmatzeke.

Gehiago, oraingoan behintzat, gure ustez justizian oinarriturik ez duen erabaki edo agindu bat ez genian hautsi. Gertatutakoa laburki esanda: egoeraren berri, mahai inguruan hobeto emango zela pentsatuz egin genduan mahaia jartzeko saiakera. Baina mahaia jartzen ikusi bezain laster,

otsoak bezala sartu hintuan, mahaia jarri nahi ziaten pertsonekin. Inperioaren hizkuntzan, geurea errespetatu gabe, eta ez ahaztu, armak altxata.

Berrogei minutuz egon gintuan, aurrez-aurre, geldi-geldi, ixil-ixilik, neurri batean «erlaxatuta» esatea ausartzen gaituk. Nolabait bukaera emateko asmoz, *Eusko Gudariak* kantatzen hasi gintuan. Kantatzen hasia eta bultzaka eta makilka hastea, bat izan hintuan.

Ez diagu uste, *Eusko Gudariak* kantatzea debekuaren barnean zegoenik. Gutxiago berriz, bultzaka eta makilka

hasteko arrazoia denik, debekuaren barnean egonda ere. Kantatu, eta ordurarte bezala, lasai-lasai etxera joango zen jendearekin oldartzea edo erasotzea, norik eta zergatik agindu zuen.

Horrela izanik, nola esan daiteke, Ertzaintzak eduki zuen jarrera, finean, tokatzen zitzaiona izan zela.

Hau dek Lizartzako plazan gertatutakoa eta bakoitzak egin dezala bere hausnarketa eta atera ditzala ondorioak.

Egoerari buruz galdetu beharko genukeela ere badiok. Gure uste apalean, Sabin In-

txaurragak esango lukeen bezala, bi pauso edo bi gauza zeudek ezer baino lehen eman edo egin beharrekoak: lotsarikiko errespetua berreskuratu eta alderetik jaitsi.

Azkenik, Xabier Arzallusen esaldi batekin bukatuko diagu. Ez duk gure debozioko santua, bainan aldiari-aldian, esaldi esanguratsuak botatzen dituela aitortzen zioagu, eta hauxe esan zian: «ETAren gaitzak gaizki hitz egitea dek gauzarik errezena».

JULIAN ZUBELDIA  
ETA BESTE 20  
HERRITAR ▶ LIZARTZA

## POLITIKA ▶



«Ezkerriar sentitzen diren eskualdeko alkate eta hautetsiek» Lizartzak bizi duen «egoera» salatu dute. A. I.

«Lizartzarren hitza  
errespetata dezatela»

Eskualdeko hainbat alkate eta hautetsik «babesa eta elkartasuna» adierazi nahi izan diete Lizartzako herritarrei

## ASIER IMAZ

«Herrietako ordezkariak legitimoak eta ezkerriar sentitzen diren» eskualdeko alkate eta hautetsiek Lizartzako herritari «babesa eta elkartasuna» adierazi zioten atzo, Villabonako udaletxean eginiko prentsaurrekoan.

Lizartzako egoeraren oinarrian, «Euskal Herriak bizi duen gatazka politikoa gordina» dagoela azpimarratu zuten. Alderdien Legea «gatazka horren» barnean martxan jarri zutela aipatzeaz gain, EAJ, EB, Aralar zein EAri zuzendu zitzaizkien. «Hauek, ematen bai-

tute gure herrietan PSOE eta PPrekin batera, lege espainiar horren gauzpen praktikoa». Adibide bezala, «Ibarra, Zizurkil, Leaburu-Txarama, Elduain eta Lizartzan, indar bozkatuenak udalartetik kanpo utzi dituztela» aipatu zuten.

## Regina Otaola eta Ertzaintza

Regina Otaolaren (PP) inguruan, lekuz kanpo dabilela aipatu zuten. «Herri batek onartzen ez duen eta nahi ez duen alkatea dugu Regina. Otaolak, PPren ofentsiba politikoa ikur bihurtu nahi du Lizartzako herria. Erreprezio eta inposata-

ketarekin etorri zaigu». Lizartzako alkateak («laguntzaileak») izan dituela aipatu zuten, «Ertzaintzaren morrontza lanak» azpimarratuz. «Oraingoan ere, PP eta EAJ elkar besarkatuta agertu zaizkigu. EAiren erreprezio gosea ageri da Lizartzan Ertzaintzak izan duen jokamolde koldarrarekin. Herri-tarrak identifikatu, egurtu eta irainduak izan dira azken hilabete hauetan Ertzaintza eta PPre aldetik».

PP eta EAJ-PNVren «ardurak gogor» salatzearekin batera, «Lizartzar guztien hitza eta erabakia errespetatzea» eskatu zuten.

## OSASUNA ▶

Gripearen  
aurkako txertoa  
Ibarraldean

Abian da Ibarraldean gripearen aurkako txertoa. Kanpaina urriaren 31n amaituko da eta Ibarra, Lizartza eta Berastegin egunero egongo da jartzeko aukera. Txaraman urriaren 9an izango da aukera, 10:00etan. Leaburun, bi egun beranduago, 11n hain zuzen ere. Belauntza, Oresa eta Elduain, urriaren 17an eta Elduain berriz urriaren 18an. Gaztelun ostegunero jartzeko aukera egongo da.

## IBARRA ▶

## Gaur askatuko dute Ion Mintegiaga

Gaur askatuko dute Ion Mintegiaga, *Minde* euskal preso ibartarra bost urte espetxean pasa ondoren. 19:30ean ongiatorria egingo diote herriarrek, ondoren herri afaria egongo delarik. Txartelak ohiko tabernetan jarri dituzte salgai, 15 eurotan aurkitzen dira salgai. Bestalde, *Minde* eskualdera gerturazten denean, autoz harrera egiteko, 12:30ean geratu dira Tolosako Benta Haundin.

## IBARRA ▶

Ibarra areto  
futbol taldea gaur  
jokatuko du

Gaur Lauburu KE Ibarra areto futbol taldeak, A Nazional mailako hirugarren partida jokatuko du Gasteizen (Arabia). Saenz Harategia taldea izango da ibartarren aurkaria. Partida Mendizorrozta kiroldegian jokatuko dute, 18:30ean.

## OSASUNA ▶

Gaztelu, Leaburu  
eta Belauntza  
hitzaldiak

Uli Mankomunitateak antolatu eta Kutzako ikasgelak sustaturiko osasunari buruzko jardunaldiak burutuko dituzte Belauntza, Gaztelu eta Leaburun. Urriaren 4an Belauntzako Kultur Etxean, 17:30ean izango da hitzaldia. Gaztelun berriz urriaren 8an, 18:00etatik aurrera herriko elkarteetan. Osasunari buruzko azken hitzaldia, Leaburuko liburutegian 17:00etan izango da.



Ion Mintegiaga *Minde*. HITZA

## ELDUAIN ▶

Zeberio II.ak  
Ezkurraren aurka  
jokatuko du gaur

Zeberio II.ak erremonete partida jokatuko du Herriarriko (Gipuzkoa) Galarretan. Jaialdia 16:00etan hasiko da eta elduaindarra Auzmendi izango du atzean. Arerioak berriz Ezkurra eta Ion izango dira jaialdiko bigarren partida onetara.

LEITZA ▶ PILOTA

# Leitzako Eskuz Binakako Txapelketaren finala, bihar

Norgehiagokak 09:00etan hasiko dira eta pilotariak 6 mailatan lehiatuko dira: benjaminak, hasiberriak, haur-kategoriakoak, kadeteak, gazteak eta nagusiak



Joan den asteburuan Amazabal pilotalekuan jokaturako gazteen arteko finalurrekoa. HITZA

**NAIARA GARZIA**

Iritsi da Leitzako Eskuz Binakako III. Txapelketaren finala. Abuztuaren amaieran hasi zen herrian kanpoko hainbat pilotari biltzen dituen txapelketa hau eta zenbait asteren ondoren, finalak bihar jokatuko dituzte, 09:00etatik aurrera, Amazabal pilotalekuan.

Orotara 6 izanen dira jokatuko dituzten finalak, maila bakoitzean lehiatuko baitira pilotariak: benjamin, hasiberri, haur-kategoria, kadete, gazte eta nagusietan, alegia. Benjaminetan Eskudero (Leitza) eta

Bakaikoa (Lakuntza) Peña (Gipuzkoa) eta Mendiaren (Gipuzkoa) aurka lehiatuko dira, hasiberrietan Dario (Errioxa) eta Mitxelena (Bera) Saralegi (Leitza) eta Tolosaren (Anoeta) aurka, haur-kategorian Sanjurjo (Lesaka) eta Jaka (Lizartza) Jaunarena (Leitza) eta Arratibelen (Tolosa) aurka, kadeteetan Apeztexea (Goizueta) eta Bolinaga (Arrasate) Jaunarena (Leitza) eta Lanaren (Lizarrar) aurka. Azkenik, jubentzetan Idoate (Irurtzun) eta Nubla (Lizarrar) Narbarte (Goizueta) eta Galartzaren (Lekunberri) aurka ariko dira eta nagusie-

tan Erroizenea (Arano) eta Bengoetxea (Eibar) Yoldi (Uhartea) eta Bessonarten (Iparalde) aurka.

## Lau leitzar finalean

Finalera iritsi diren pilotari hauetatik 4 Leitzako Aurrera Pilota Eskolakoak dira, Eskudero (benjaminetan), Saralegi (hasiberrietan), Xabier Jaunarena (haur-kategorian) eta Jon Jaunarena (kadeteetan). Beste 2 pilotari erdi leitzarrak dira kanpoan bizi arren, Mitxelenak eta Galartzak, hain zuzen ere, ama leitzarra baitute. Pakito

Sagastibeltza pilota eskolako arduradunak azaldu duenez, «txapelketa hasi zenean 3 edo 4 pilotari finalera iristea espero genuen. Azkenean 4 iritsi dira eta oso pozik gaude, ez baita batere erraza».

## Puntako pilotariak

Afizionatu mailan punta-puntako pilotariak dira igandean Amazabalen lehiatuko direnak. «Galartza, Idoate, Narbarte, Jaunarena, Apeztexea... punta-puntakoak dira, baina gertatzen dena da kadeteetatik aurrera nabarmentzen hasten direla. Benjaminak, hasiberriak eta haur-kategoriakoak ezkutuak bezala gelditzen dira, pilotariak daukaten maila kadeteetatik aurrera erakusten hasten dira».

Maila bakoitzean oihartzun gehiena duten pilotarien izenak aipatu ditu Sagastibeltzak. «Benjaminetan Bakaikoa, hasiberrietan Tolosa, haur-kategorian Arratibel, kadeteetan Jaunarena, gazteetan Galartza eta nagusietan Bessonart. Nagusien mailan honengan dute itxaropena, Erroizenea jada urteetan aurrera baitoa, baita Bengoetxea ere».

Igandean Amazabalen jokatu diren 6 partidetatik Pakito Sagastibeltzaren ustez ikusmin gehien sortuko dutenak 2 izanen dira: kadeteena eta gazteena. «Kadeteetan Jaunarena eta Bolinaga elkarren kontra aritzeak ikusmina sortuko du, baita gazteen mailan Galartza Idoateren aurka lehiatzeak ere».

Partidak ezezki, sari banaketak ere ikusmina sortuko du, Leitzako eta Aresoko pilotari

famatuenean banatuko baituzte garaikurrak, baita txapelketerekin modu batean edo bestean zerikusia izan duten ordezkariak ere.

## Sari banaketan jende ugari

Abel Barriola, Oinatz Bengoetxea, Mikel Olazabal, Ibai Bengoetxea, Iñaki Gaztelu eta Ruben Astibia sariak banatuko dituzte, baina hauetaz gain beste zenbait lagun gonbidatu dituzte lan hau egiteko, hala nola, Nafarroko federazioko, Leitzako udaletxeko, Aurrerako eta Goiko enpresako ordezkariak, Iñaki Elorza kazetaria eta Pupa pilota enpresako nagusia. «12 garaikur banatuko ditugu osotara, txapeldunak eta txapeldunordeak, eta horrexegatik 12 lagun ekarri ditugu. Baten batek huts eginen badu pilota eskolakoak emanen genuke sari hori».

10:00etatik aurrera hamaitakakoa egingen dute eta pintxoak ere izanen da. Sarrerak 5 euro balioko ditu, eta gainera zozketa pare bat ere egingen dituzte, euro bateko txartelen truke. «Urdaiazpikoa, gazta, ardoa... eta horrelakoak zozketatuko ditugu», dio Sagastibeltzak.

Sari banaketan ere txistulariak izanen dira.

## FINALA ▶

### PARTIDAK

**Benjaminak.** Eskudero eta Bakaikoa, Peña eta mendiaren aurka.

**Hasiberriak.** Dario eta Mitxelena, Saralegi eta Tolosaren aurka.

**Haur-kategoria.** Sanjurjo eta Jaka, Jaunarena eta Arratibelen aurka.

**Kadeteak.** Apeztexea eta Bolinaga, Jaunarena eta Lanaren aurka.

**Gazteak.** Idoate eta Nubla, Narbarte eta Galartzaren aurka.

**Nagusiak.** Erroizenea eta Bengoetxea, Yoldi eta Bessonarten aurka.

▶ Partidak 9:00etan hasiko dira.

## Eskudero, Saralegi eta Jaunarena anaiak finalean

Bihar jokatu diren 6 finaletatik, 4etan Aurrerako pilotariak ariko dira: Ander Eskudero, Iñaki Saralegi, Xabier Jaunarena eta Jon Jaunarena.

Eskudero pilotariak azaldu duenez, «finalera iristea ez da erraza izan». Bakaikoa bere ki-dearen ondoan gauzak errazagoak direla onartu du. «Berarekin lasaia goa finalera». Saralegi ere finalera iristea

ez zuela espero adierazi du. «Ezustekoa izan da, partidak oso gogorrak izan ez diren arren». Xabier Jaunarenak igandean sufritu egingen dute dio. «Orain arte ere justu ibili gara». Jon Jaunarenaren ustez txapelketa «gogorra» izan da. «Bikote asko zeuden, eta denak oso onak, Euskal Herriko hoberentsuenak. Irabazi egin nahiko nuke». ◀



Xabier eta Jon Jaunarena, Iñaki Saralegi eta Ander Eskudero. n.g.

**ARAMBURU**

Salgai (Tolosa).  
Pisua "La Estrella" eraikinean.  
Salgai (Ibarra).  
Garajeak Euskal Herria kalean, irekiak.  
Salgai (Tolosa). Garajeak Leidor azpian.  
Salgai (Ibarra). Lokala Euskal Herria kalean.  
Salgai (Tolosa).  
Garaje itxia San Frantzisko kalean.  
Alokatzeko (Tolosa).  
Pisua, Nafarroa etorbidean.  
Alokatzeko (Tolosa).  
Garajea irekiak, Araba etorbidean.  
Alokatzeko (Tolosa).  
Garaje itxia, San Frantzisko eta lurren.  
Alokatzeko (Leaburuko bidean).  
Pabiloi industrialak.

943 65 17 13 / 677 46 09 16



**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Tolosa.** Emakume Arraunlarien I. Topaketa izango da 12:00etan Oria ibaian, Ondarru, Orio, Zumaia, Pasaia, Donostia, Hondarribia eta Tolosaldeko arraunlarien partaidetzarekin.  
**Villabona.** Tiro, toka eta bote txapelketak eta arratsaldean bistorrada Biltoki jubilatuko elkartean, Adinekoen Astean.

**JAIAK**

**Irura.** Jaiak: 09:00etan, goiz erezia; 11:00etan, meza nagusia eta elizaren inaugurazioa; ondoren, dantzari txikien saioa eta hamaiketakoa; 17:30ean, Loatzokoen emanaldia; 18:30ean, Los Cinco Bilbainos kantu herrikoiak eta bilbainadak; 20:00etan, Rio Samba Show-en kalejira; 23:00etan, Alurren emanaldia; 00:30ean, Trikidantz.  
**Tolosa.** Udazkeneko festa: 10:00etan dulzaineroak eta txalapartariak eta arku-tiroa parke Juraskoan; 11:30ean zezentxoan entzierroa plaza Berrian; 12etan buruhandi eta erraldoiak; txaranga Bonberenea; 12:30ean plaza Zaharren hamaiketakoa; 18:00etan buruhandi eta erraldoiak; 19:00etan, Konpartsen despedida eta haur jaiadia Plaza Zaharrean; 19:30ean, Gorriti plazan, Udaberri taldearen saioa; 20:00etatik 00:00etara, The Jones Brother 's txaranga; 21:15ean, Zerkausia herri-afaria; 23:30ean, Thc-ren kontzertua Plaza Berrian.

**ZINEMA**

**Tolosa.** *Ratatouille* filma emango dute Leidor aretoan 17:00etan.  
**Tolosa.** *La jungla 4.0* filma eskainiko dute 19:30ean eta 22:30ean Leidor aretoan.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
**Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 654610.  
**Irurtzun.** Gastearena, M. Amaia kalea 4, 112.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

# Azken txanpan murgilduta

**IRURA ▶** San Miguel Eguna ospatuko dute gaur irurarrek, herriko jaien baitan; atzo ere kirola eta musika izan ziren protagonista



Lau mutilek jokatu zuten xarean, kirol honek herrian etorkizuna duela erakutsiz. I. GARCIA



Palan lau neska aritu ziren eta tanto politik eskaini zituzten Trinketearen bildutako ikusleei. I. GARCIA

**ERREDAKZIOA**

**A**zken asteburura heldu dira Irurako San Miguel jaiak. Hain zuzen, euren zaindariaren eguna ospatuko dute gaurkoan irurarrek, egitarau oparoarekin. Adin guztientzako ekitaldiak izango dira egun guztian zehar eta gauean Ibarako Alurr dantza taldearen emanaldia izango da. Atzo arratsaldean ere jai usaina nabari zen herrian.  
Besteak beste, pilota eskola-ko haurren arteko xare eta pala partidak izan ziren ikusgai trinketearen. Musikak hartu zuen kirolaren lekukoa. Loatzo eskolako eskutik. Asteburuan zehar hainbat ekitaldi izango dira Iruran. Bertakoek nahiz kanpokoek ez dute, beraz, aitzakiarik etxean geratzeko bi egun hauetan zehar.

**AGURRAK ▶**

**Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.**

▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea

▶ HITZAren egoitza Leitzaan Udaletxeko bulegoa